


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI), 2010eko EKAINA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,3 jaitsi ziren 2010eko ekainean aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2010eko ekaina, 2009koarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %2,3 gehitu ziren.

2010eko ekainean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,3 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %2,3 igo zen, EUSTATEN datuen arabera.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2010



(*) Gehikuntza ekainatzako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

2010eko ekainean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,3 jaitsi dira.

Ekainean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek beherantzako bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzan %0,4ko jaitsiera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,1ekoa. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak intentsitate ezberdinak erakusten ditu. Etxegintzako lehengaien kostuak %1,9 igo dira eta Obra Zibilekoenak %5,5.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean Petrolio-fintzea (%21,7) nabarmentzen da. Ondoko sektoreetan ere igo dira prezioak: Metalurgia (%14,3), Energia elektrikoa, gasa eta ura, (%3,1), eta Material elektrikoa (%2,4), besteren artean. Berriz, urteko prezioetan (2010eko ekaina 2009koaren aldean) jaitsierak izan dituzte ondoko sektoreetako lehengaiak: Zurgintza (%-1,4), Metalezko artikulua (%-1,2) eta Altzarigintza (%-0,2).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2010EKO EKAINA

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	118,1	-0,3	2,3	1,6
ERAIKINAK	117,7	-0,3	1,8	1,2
OBRA ZIBILA	119,7	-0,1	4,3	3,2
LEHENGAIEN KOSTUA	117,3	-0,3	2,6	1,7
ERAIKINAK	116,8	-0,4	1,9	1,2
OBRA ZIBILA	119,2	-0,1	5,5	3,9
LAN-ESKUAREN KOSTUA	121,1	0,0	1,4	1,4

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua